

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Zallako Udala****Euskara ikastaroetan izena ematearen gastuei aurre egiteko dirulaguntza***Aurrekariak*

Ikusi da udal honek euskararen erabilera sustatu nahi duela.

Ikusi da udal honek familiei lagundu nahi diela euskarako ikastaroetan matrikulatzeak dakartzan gastuak ordaintzen.

Legezko xedapenak

- Udal Diru Laguntzen Estrategia Plana.
- Udalaren Diru Laguntzen Ordenantza Orokorra.
- 2017ko irailaren 15ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Diru Laguntzen Oinarri Espezifikoak.
- 2018ko irailaren 19an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Diru Laguntzen Oinarri Espezifikoaren aldaketa.
- Honen bidez, Zallako Udaleko alkate-udalburu Juan Ramón Urkijo Etxeguren jaunak

HONAKO HAU EBAZTEN DUT:

«Euskara-ikastaroetan izena ematearen ondoriozko gastuei aurre egiteko dirulaguntzak» esleitzeko deialdia onestea, honako hauek kontuan hartuta:

- Diru-laguntza hauek 2019. urterako udal-aurrekontuen 2.3351.48002 partidaren kargura emango dira, eta 10.000 euro izango da gehieneko zenbatekoa.
- Diru-laguntza hauen helburua da adierazitako ikasturtean euskara ikasteko ikastaroak egiten dituzten pertsonen laguntzea. Horren bitartez, euskararen ezagutza eta erabilera sustatu nahi da eta, era berean, euskaltegi publiko edo pribatu homologatuetan euskara ikasteko ikastaroak egin dituzten pertsonen gastu horiek ordaintzen lagundu.
- Hori dela eta, oinarri hauek finkatu dira diru-laguntzak norgehiagoka-araubidean emateko.
- Deialdi honetan, oinarri arautzaileen arabera 2018-2019 ikasturteari dagozkion gastuak hartuko dira kontuan.
- Diru-laguntzen eskaerak aurkezteko epea 2019ko urriaren 1etik 31ra bitartekoa izango da, eta udal-erregistroaren zerbitzuetan aurkeztu beharko dira (HAZ eta Arangune).
- Diru-laguntzak ebazteko gehieneko epea 2019ko abenduaren 31 izango da.
- Halaber, erabaki da deialdi hau Zallako Udalaren informazio-bideen, iragarki-taularen, Udalaren webgunearen eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren bitartez argitaratuko dela.

Zallan, 2019ko irailaren 13an.— Alkatea, Juan Ramón Urkijo Etxeguren